

## **OÑATIKO UR – JAUZIAK, S.A.**

### **Sozietatearen izena**

Oñatiko Ur – Jauziak, S.A.

### **IFK**

A20209995

### **Izaera**

Sozietate anonimoa.

### **Kontabilitate-araubidea**

Pribatua.

### **Aurrekontu-araubidea**

Gutxi gorabeherakoa.

### **Sorrera**

Sozietatea 1989ko urriaren 10ean eratu zen, eskritura publikoaren bidez, Saltos de Olate, S.A. izenarekin. Energiaren Euskal Erakundearen partaidetza [Energiaren Euskal Erakundeari Sozietate Anonimoan parte hartzeko baimena ematen dion maiatzaren 22ko 139/1990 DEKRETUAK](#) baimendu zuen.

### **Sail-atxikipena**

Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasuna.

### **EJSN**

3515 Energia hidroelektrikoaren ekoizpena.

### **Sozietatearen helburua**

Sozietatearen xedea hainbat zentral hidroelektriko esleipen erregimenean ustiatzea da, energia elektrikoa ekoizteko, bai eta ustiapen horretarako beharrezkoak, egokiak diren edo hari lotuta dauden jarduerak egitea ere. Sozietateari emandako kontzesioak honako hauek dira:

- Zapatako ur-jauzia
- Saratxoko ur-jauzia
- Arantzazuko ur-jauzia
- Olateko ur-jauzia
- Lamiategiko ur-jauzia
- Ubao-Tokilloko ur-jauzia

### **Sailkapena kontabilitate nazionalean**


Sozietate ez-finantzarioak: pribatuak.

### **Kapital soziala**

2.690.800 €

### Kapital sozialaren osaera

Oñatiko Udala	% 90,00
Energiaren Euskal Erakundea (EEE)	% 10,00



### Ekitaldiko ekonomia- eta finantza-magnitude nagusiak

Aktiboa guztira	3.476.463 €
Ondare garbia	3.324.300 €
Negozio-kopuruen zenbateko garbia	740.623 €
Batez besteko langile-kopurua	4,20

### Sozietatearen helbidea

San Lorentzo auzoa, 41, 20560 Oñati (Gipuzkoa)

### Webgunea

[www.oinati.eu](http://www.oinati.eu)